



*ENERGIA
AURREZTEKO
AHOLKUAK*



Emaitzazu atsedean bat zure ordenagailuari

Pantaila lauek eta eskuko ordenagailuek gutxiago kontsumitzen dute

Erabili behar ez duzunean, ez ahaztu: itzali eta deskonektatu.



Behar ez dituzunean, geletako argiak itzal itzazu

Kontsumo baxuko argiek, energiaren %80-a aurreztu dezakete

Fluoreszenteak erabiltzen badituzu eta gelatik 15 minutu baino gutxiago irtengo bazara, ez ezazu argia itzali: fluoreszenteek energia gehiago kontsumitzen dute piztean, itzali barik kontsumitzen dutena baino.

*Aparatua erabiltzen ez
duzunean, entxufe guztiak
deskonekta itzazu*

*Telebistek, bideoek,
ordenagailuek,
mugikorrek...atseden
egoeran dauden
bitartean ere energia
kontsumitzen dute*

*Aparatuak "stand
by" egoeran usteak,
etxeko energi-
gastua %5 eta %13
bitartean igotzea
eragiten du .*



Ez ezazu ura alferrik galdu

*Hortzak
garbitzen
dituzunean,
edalatzia
erabili txorrota
irekita utzi
ordez. Honekin
14 litro ur
aurreztu
ditzakezu*



*Komunontzia
paperontzi
moduan
erabiltzen
baduzu, egunero
55 litro ur
alferrik galdu
daitezke*

Bainua hartu dutxa hartu beharrean

*Xaboia
ematen
duzun
bitartean,
txorrota itxi*

*Gustoko duzun
abesti motz bat
aukeratu eta dutxa
hartzen duzun
bitartean abestu.*

*Abestia bukatzean,
itxi ezazu ur
txorrota.*



Ez zaitez hainbestetan kotxera sartu

*Sarritan, nahiz
eta ibili behar
den distantzia oso
motza izan,
kotxea erabiltzen
dugu.*

*Ez galdu aukera,
eta bizikleta
hartu edo oinez
egin bidea!*



Beheratu

Berreraibili

Birziklatu

*Saiatu zaitez
paketatze asko
ekartzen duten
produktuak, erabili
eta botatzeko
produktuak,
plastiko asko
dakartenak...ez
erabiltzen.*

*Papera, kartoia,
beira, metalak,
plastikoa...egiteko
energia asko behar
da. Produktuak
bananduz eta
birziklatuz, energia
aurreztu dezakegu.*

Erosi aurretik, gogoan izan:

Benetan behar duzu?

Nagusieí gogoratu...

- Kotxean lanera joateko saia daitezela beste norbaitekín joaten*
- Informazioa jaso eta bidaltzeko, posta elektronikoa erabil dezatela papera erabili orde*
- Papera erabiltzen dutenean, bi aldeetatik erabili eta orriak berrerabil dezatela.*
- Saia daitezela produktu kargagarriak erabiltzen eta erabilera bakarreko produktuak ez erosten: plastiko edalontziak, bizar-aitzurrak...*
- Elektrotresnak aldatu behar direnean, saia daitezela energia gutxien kontsumitzen dutenak erosten (A+ o A++)*
- Komuneko tangatan eta txorrotetan erreduktoreak jartzen saia daitezela.*
- Labea erabili orde, microuhín labea erabili dezatela.*
- Energia aurrezten saia daitezela.*



*ENERGIA
AURREZTEKO
KONTPROMEZUA
HAR EZAZU!!!*